


BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 266. alea - 2021eko urria



Amaiakak Bat
75 urte eta sasoi betean




**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

MAIUTARAKO
EUSKAL
OKELA

CARNE DE BIZONDO
DE CALIDAD
DEL PAIS VASCO
EUSKO LABEL



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



Seven Clovers
Irish pub

943 191 295

Informatika
Tresneria
informatikoa



Elektronika
Osagai
elektronikoak

Informatika JLC Elektronika
Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

informatikajlc@informatikajlc.com



atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURAK, ABOKATUA
Arakistain plaza, 2 behea - DEBA
Tel: 943 19 22 63
www.atarideba.com

Calbeton



JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan**


Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



BURU - ZURI
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

✉ Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

☎ Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

🌐 sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com



LAMARIANO
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52

Maitena Arrizabalaga Deba
Odontologia

Kolegiatu zk. 20.000.975

maitena

HORTZ KLINIKA

Tel. 943 83 04 24

Gipuzkoa kalea 28-3ºesk, Zarautz



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

AURKIBIDEA

8

ALBISTEA

Fokupean
Emakume Aktoreen
Festibalaren lehen
edizioa azaroan



9

ALBISTEA

Tene Mujikaren lana
ezagutarazteko
ekimen sorta
abian du Udalak



10

ERREPORTAJEA

75. urteurrena
ospatzeko ekimenak
antolatu ditu
Amaiak Batek



12

ELKARRIZKETA

Merche Unanue
elkarrizketatu dugu
Debarrak Munduan
atalean



16

GAZTEAK IDAZLE

Literatur lehiaketan
saritutako
Ane Gonzalezen
"Bi ur tanta" irakurgai



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefona: 943 19 13 83 / 632 043 322

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



DEBAKO UDALA



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Salburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Erredakzioa: Izaro Aulestiarte, Nagore Dorronsoro eta Alex Turrillas

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzioa

Publizitatea: Joseba Escudero eta Alex Turrillas

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria

Lege gordailua: SS-246-2009

Inprimategia: Euskalinpri

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

ME ENDAÑETA
muebles altzariak



Sukalde eta etxe altzarien
erakusketa izugarria 3000m²

Itziariko gaina

T.: 943 19 91 00 - F.: 943 19 91 01

ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

endaneta@mueblesendaneta.com

www.mueblesendaneta.com

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Adi egon! Azaroan ospatuko dugu Kolore Anitz Eguna!



Kaixo, kolore familia!

Irrikaz geunden uda ondoren berriz zuekin elkartzeko eta, uste baino lehenago, iritsi da momentua. Jakin Kolore Anitzeko begiraleok poz-pez geratu ginela uztailean izan genituen udalekuen ostean, plazera da urtero zuek bezalako familia eta hurrekin lan egitea.

Taldeak ere aldaketak jasan ditu azken garaioan, izan ere, taldekideak joan eta etorri, talde berri bat osatu dugu.

Dakizuenez, ikasturteari hasiera emateko, Euskal Jaiko asteburuan gure aletxoak jartzeko asmotan, kolorez beteriko ekintza bati ekin genion eta ze irribarre eraman genuen etxera!, zuen inplikazioa izugarria izan zen eta.

Badakizue ikasturtea hastearikun batera ekintza berriak ere egin ohi ditugula, eta Euskal Jaiko ekintzaren ondoren, Kolore Anitz Eguna ospatzekotan gabil-

tza. Ez dizuegu informazio askorik eman nahi, izan ere, oraindik lanean gabilta, bai zuek eta bai guk, begiraleok, ahalik eta egun dibertigarriena pasatzeko.

Hala ere, zertxobait aurreratuko dizuegu, lasai, jakin-minez ez lagatzearen: Kolore Anitz Eguna azaroaren 13an ospatuko dugu. Horretarako, haur eta nerabeentzat ekintza ezberdinak antolatzen gabilta, eta Lehen Hezkuntzako ekintzak aurrera eraman ahal izateko, LH1-LH6 urte bitartekoek izen-emate orriak bete beharko dituzte, sei pertsonako taldeak osatuz. Izen-emate orriak eskolan banatzeaz gain, Kolore Anitzekook urriaren 22an, arratsaldean, eta urriaren 23an, goizean, udaletxe azpian izango gara izen-emate orriak banatzen eta eskolan banatutakoak jasotzen. Beraz, familia, Kolore Anitz eguneko ekintzetan parte hartzera gonbidatzen zaitugu!



Bestetik, gogoratu Kolore Anitz Zuhatza Euskara Elkartearen zati dela, eta Zuhatzak aurrera egin ahal izateko 600 bazkide izatera iritsi behar duela. Horregatik, Kolore Anitzeko begiraleok zuoi, familioi, bazkide egiteko gonbidapena luzatzen dizuegu. Horretarako, www.labur.eus/Zuhatza_EginBazkide esteka jarraitu dezakezue.

Laster elkar ikusiko dugulakoan, ondo-ondo segi!

Kolore Anitzeko begiraleak



G

JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba





janire & maitane
ileapaindegia



Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31 | www.janiretamaitane.com

Zumardi

pentsioa

Tel.: 688 800 619
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com

ORAIN

ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba

LABATAI
taberna

GOSARIAK GOIZEKO
06:00 ETATIK AURRERA
PINTXOAK, OGITARTEKOAK
ETA PLATER KONBINATUAK,
EGUN OSOAN ZEHAH



Eskerrik asko, Txernobyl

1986, apirilak 26, 01:10. Sobietarrek eraikitako Txernobylgo laugarren Rbmk erreaktorea Pripyat eredu-hirian, nukleoaren fusio izenekoan sartzen da. Gainerakoa, asko kostata izan bada ere, esan liteke ia dena ezaguna dela.

Txernobylen egindako bigarren egonaldi honen ondotik, are gogo handiagoa dugu oraindik hirugarrenez bertaratzeko. Planetako historia handiko ingurunea da, eta bertakoak harriak bezain gogor, jasankorrak, lehenago ezagututako inor ez bezalakoak. Planetako herrialde ugari lagundu izan die, baita guk geuk ere, herri gisa. Debak harreman estua du Oraneko eskolarekin; zentraletik 30 bat kilometrora dagoen herria da Orane, baztertzegune ezagunaren (beraiek “gune hila” deitua) alboan, hain zuzen ere.

Gure lurraldeko familia ugari ekarri izan dituzte hango umeak urte askoan zehar. Baina ez dugu nahi artikulua beste bat baino ez izaterik. Testu honen bitartez, Ikerrek eta nik, modu batera edo bestera, azaldu nahiko genuke denborak bere lana egin duela, eta, batez ere, ditzosozko gau hartatik orain arteko denboran egin den lan guztiak eman dituela bere fruituak.

Bai, esan bezala, hangoak bereziak dira, beste ore batez eginak. Berriz ere, zoritxarraren aurrean ez erortzea lortu dute, burua tente dutelarik altzatzea erradioaktibitatearen maltzurkeria ikusezinaren parean. Orrialdea pasatzea lortu dute, betiere ahaztu gabe, gaur egun oraindik, zeharka bada ere, bizitzak hondatzen jarraitzen duen hondamendi haren eragin izugarria pairatu duten milaka eta milaka pertsonaren sufrimendua. Ezbeharrak izan zena baino txikiagoa izan zedin lan egin zuten pertsonen ausardia eredu izan beharko genuke, eta egunero gure etxeetan daukagun ongizatea aintzat hartu. Han, “gune hil”ean, egoteak ondo, oso ondo, zaudela erakusten dizu.

Baztertzegune osoan zehar auto alokatuarekin hainbat egu-



2020ko otsaila, Pripyat hiri mamuaren sarrera, Txernobylgo zentral nuklearraren istripugunea.

nean ibiltzean atera genuen ondorioa izan zen dagoeneko ez daudela gaizki, ez direla hain gaizki bizi, alegia. Buelta eman diote. Hori bai, inork ez du hartaz hitz egin nahi. Badirudi orban batek zikindu dituela beren bizitzak. Uztailean arto eta eguzki-lore zelaiak izugarriak dira eta hango jendea soroetatik edo abeltzaintzatik bizi da. Ez dute guk bezalako plazerik bizitzaz gozatzeko, baina zoriontsu dira horrela.

Oraneko apaiza ezagutu genuen; 43 urte eta 1,95eko altueraz, Vitali Klitschko, zama astunetako munduko txapeldun ukrainarra, zirudien. Kievera itzultzeko autobusera eraman gintuen bere autoan. Mesede ederra egin zigun! Eta botila bat ardo oparitu zigun gainera, mezetan ematen duen ardo gozoarena. Guk bi txirrindu eta beste zenbait gauza ere oparitu genizkien, hango umeentzat.

Egia esan, etxean bezala sentitu ginen. Hemendik eskerrak eman nahi dizkiogu baztertzegunearen kanpoaldeko komunitate osoari egoera ulertzen laguntzarren, irakastearren, eta gure bizitzen parte izatearren; bizitzako zorigaitzen aurrean eredu izango baititugu.

Denbora badoa, baina bizia dagoen bitartean badago itxaropenik! Beraiek lortu dute. Beste bat arte, Txernobyl. Berriz elkar ikusi arte.

Jon Esnaola eta Iker Badiola

Non dago bada?

Bihotza eta buruaren arteko elkarrizketa sakon batean murgilduta esnatu naiz bart. Bihotzak zioen malkoei heldu eta korrika ihes egiteko ordua zela; buruak, berriz, begiak itxi eta lotan jarraitzekoa.

Diote eskolan irakasten dutela zein momentutan zein sentimenduri egin behar diogun kasu. Nire ustetan, hori esan zuenak sentimendu objektibo gutxi zituen.

Nork daki hiru edo zortzi urteko umei, edo hamabiko nerabeei bihotza eta burua zein noiz erabili behar duten irakasten? Bizitza bizi eta joan direnek, umeren bat izan dutenek, abortatu

behar izan dutenek, kartzelan egon edo norbait besoetan hil zaien oraindik ez dakite zeri egin behar dioten kasu, eta haiek, goian dauden haiek diote eskolan erakutsi behar zaiela pertsonen burua eta bihotza zein momentutan, nola eta zenbat denboraz erabili.

Hau guztia zer da, pandemiaren beste ondorio ikusezinetako bat? Telebistan agertzen ez diren horietako guztietako beste bat? Zer bihurtu gara? Zeinen erraz ixten ditugun begiak eta zer erraztasun daukagun gortzeko, ez entzuteko, ez sentitzeko. Bihotzak agintzen duen tokian, non dago, bada, burua?



ITSASO ICIAR

Itziarko parrokiako 1887ko matrikula-liburu interesgarria agertu da Bilboko Astarloa liburu zaharren denda sonatuan



Maiatzean Patxi Aizpitarte Itziar eta Debako apaizak adierazi zidan Itziarko eliz artxiboko agiri interesgarri baten berri izan zuela. Agiri hori salgai zegoen Bizkaiko hiriburuko liburu zaharren denda ezagun batean, Astarloan. Arduradunak esan omen zion salgai zituenen artean kenduko zuela berehala eta Itziarko parrokiari dohaintzan eman. Parrokiako matrikula-liburua da, eta 1887tik 1902rakoak jasotzen ditu.

Liburua Bilboko liburu-dendak Real Sociedad Bascongada de Amigos del País-eko kide eta ikerlari izan zen Juan Antonio Garmendia Eloseguiaren oinordekoei erositako paper, liburu, argazki eta kartel sorta handi bateko parte zen.

Liburua "Libro de matrícula y conferencias litúrgico-morales parroquia de Itziar, Gipuzkoa. Años 1887 a 1936" modura erreferentziatu izanak sumarazi zigun hainbat liburukik osatutako bilduma bateko parte zela (besteak leku ezezagunetan daude eta 1936ko erregistroekin amaitzen dira). Izan ere, honen izenburua "Libro de matrícula de la Parroquia de Iciar. Dá principio en el año de 1887" da.

Liburuaren azalak pergaminozkoak dira eta aurreko azala oso hondatuta dago; barrualdea, nahiko egoera onean. Orrialde bakoitzean 13 lauki ageri dira eliztar bakoitzaren datuez beteak.

Edukiari dagokionez, goiburuan "Calle de..." eta auzo desberdinen izenak edo herriguneara ageri dira eta azpiko 13 laukietan honako datuak: erregistro-tutako pertsonaren ordena-zenbakia,

etxearen zenbakia edo baserriaren izena, solairua, eliztar guztien izen-abizenak, jaiotze-lekua, adina, egoera zibila, lanbidea, Itziarren bizitzen daraman denbora, konfirmazioa egin duen, lehen jaunartzea egin duen, pazkoko agindua bete duen, eta oharrak.

Matrikula-liburuak herrigunea eta auzoak bereizten ditu. Interesgarria da ikustea herriguneko ia etxe guztiek beren izena zutela. Izenak batzuetan jabearen lanbideari egiten zion aipamen, bestetan abizenari, bere jatorrizko baserri edo herriari, edo bere ezaugarri fisikoren bati, baita etxearen erabilerari ere. Horrela, etxe-izen hauek ageri zaizkigu, besteak beste:

Carterocua, Confiterocua, Organistacua, Zapataricua, Medicocua, Aguardentecoa, Alambrazallecoa...; Roquenecua, Gasparrenecua, Antoni motzanecua, Chinchocua, Bisimodu, Anducenea, Arteondocua...; Pagatzacua, Guetarienea...; Hospitalecua, Dendaberricoa, Taberna zarra...; Plazacua, Calzadacua, Errondacua, Erretenberria...

Itziar, Egia, Itxaspe, Arriola, Mardari, Elorriaga, Lastur behea,

Lastur goia, Endoia eta Arbiskoa auzoak ageri dira. Ez, ordea, Sasiola, Artzabal eta Deba ibaira ematen duten mendi-magaletako baserri batzuk, Debako parrokiak baitzeuden erregistro-turik. Egun desagertuta dauden Arronamendiko baserriak ere ez dira aipatzen, Egaña eta Gorritiberea familiak eta, gero, Larramendi familia bizi izandakoak.

1887an 1642 pertsona zeuden eliztar modura erregistro-turik Itziarren. Abizenek garai bateko endogamiaz hitz egiten digute. Adibidez, argi geratzen da Agirregabiriarrak Lastur Goikoak eta alboko Endoikoak direla, Ezteia, Txarrantxola edo Ziolar baserrietan errotauak; Elorriaga auzoan ez zegoen Agirregabiriarik. Ezkongai ahalik eta hurbilen aurkitu beharra zegoen.

Azkenik, gogoetatxo bat: Itziarko egungo baserrien 70 bat Debako lur-neurtze liburuan (1482 eta 1483) aipatzen ziren, 1887ko liburu honetan ere bai. Urte gutxian, zoritxarrez,

beste asko galdu ditugu. Gure baserriak zaindu beharreko ondare ditugu. Eta ezingo balitz eta harri zaharren gainean eraiki beharko bagenu, haren izena gordetzera behartuta geundek, gure historian ezabaturik gera ez daitez.

Alex Turrillas Aranzeta

"Baserrien harri zaharren gainean eraikitzerakoan izena gorde beharko genuke, historian ezabaturik ez geratzeko"

Arteondo
Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34

LK Home

Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria
688763289 • inmolhome@gmail.com

SGO

SANTIAGO GARCIA ORDOÑEZ
Abokatu eta ekonomialari elkartuak
Zerbitzu juridikoak
670 411 444
centrolegal@sgobogados.eus

Amaitu dira Deba eta Mutriku lotzen dituen oinezkoen pasealekuko lanak

Gipuzkoako Foru Aldundiak Mutrikuko Ondarbeltz hondartzaren eta zubiaren arteko oinezkoentzako pasealekua eraikitzeke obrak amaitu ditu. Horrela, jendeak kostaldeko bi herrien arteko sei kilometroak oinez egin ditza-ke, galtzadan ibili beharrik izan gabe.

Markel Olano diputatu nagusia, Aintzane Oiarbide Bide Azpiegituretako diputatua, Gilen Garcia Debako alkatea eta Joseba Palenzuela Mutrikuko alkatea pasealekua osatzeko falta zen zatian egon ziren irailaren 29an.

2020ko udaberrian, GI-638 errepidearen hobekuntza eta Ondarbeltzeko aparkalekuaren eta Mutrikuko hirigunearen arteko oinezkoen pasealekua jendementzako ireki zirenean, jarduketa eremutik kanpo geratu zen orain amaitu den zatia. Horren ondorioz, Deba eta Ondarbeltz arteko pasealekua erabili nahi zuten herritarrek 200 metro inguru-

ko tartea egin behar zuten errepidetik, Urazamendik auzoaren eta Ondarbeltz hondartzaren artean, eta horrek arrisku handiko egoerak eragiten zituen.

Oinezkoentzako pasealekua 2 metro zabal da, eta hormigoizko harri-lubetaz-ko eustorma baten gainean eraikita dago. Horma horrek 200 metroko luzera du, eta altuera ia aldaketarik gabea, 3,3 metro da gehienekoa. Horma horretan sartuta, Ondarbeltzeko kantinako eta Gure Estalpe finkako hondakin urak biltzen dituen saneamendu kolektorea eraiki da, eta, horrela, desagertu egin dira Debako itsasadarrera egiten ziren ur beltzen isurketak.

Azken zati honetako obrak 400.000 eurotik gorako aurrekontua izan du, eta 5 hilabetean gauzatu da. Deba eta Mutriku arteko GI-638 errepidearen berritzeak eta oinezkoen bidea gauzatzek, orotara, 10,5 milioi euroko aurrekontua izan du.

Amaitutzat eman dute osasun larrialdia, neurri gehienak bertan behera lagata

LABiren Aholku Batzordea urriaren 5ean elkartu zen azkenengoz, eta osasun larrialdi egoera desaktibatzen duen dekretua onartu zuen. Honenbestez, bertan behera gelditu ziren jardueren ordutegiak, edukiera eta egituraketa mugatzen zuten ordura arteko neurriak. Hala ere, bi neurri murriztailek indarrean segitzen dute. Adibidez, maskararen erabilerak.

LABiren Aholku Batzordearen prentsaurrekoan Iñigo Urkullu lehendakariak jakinarazi zuen pandemiaren oraingo egoera bat datorrela "Bizi Berri Planaren 1. mailan ezarritako parame-

troekin". Hori horrela, dekretu berriaren bitartez, bertan behera geratu dira orain arte indarrean zeuden neurri murriztaile nagusiak, bi salbuespenekin:

Batetik, eutsi egingo zaio espazio itxietan eta 5.000 lagunetik gorako edukiera duten esparruetan antolatutako ekitaldietan % 80ko mugari. Bestetik, indarrean jarraituko du barnealdeetan maskara erabili beharrak, baita kanpoaldeetan ere, pertsonen arteko distantzia mantendu ezin denean.

Osasun larrialdi egoera amaitutzat eman ondoren desegin egin da Aholku Batzordea.



NEKANE GOIKOETXEA

오징어 게임

Hego koreeraz idazten dudana lehen hitza da izenburukoa. Hego Korea mapa batean kokatzeko zailtasunak izango nituzke, baina hara non Netflix kultur globalizataileari esker serie oso bat ikusi dudana koreeraz, *Kalamar* (edo txibia) *Jolasa* izena duen seriea, hain zuzen ere (*Squid Game*, *El juego del calamar*).

Gure alabak proposatu zuen etxean ikustea eta, nik serieak duen itxuragatik aukeratuko ez nukeen arren, aho bete hortz utzi nau. Diru (eta bes-telako) arazoak dituzten pertsonak, biziraupena jokoan dutenak denak, txapelketa bortitz eta klandestino batean parte hartzera gonbidatzen dituzte: soilik batek irabaziko du sari aberatsa, beste guztiak hil egingo dituzte.

Biolentziaz betetako seriea da: hiletak, adibidez, gordin ikusten dira; tentsioa ikaragarria da eta dilemaz betetako eszenak daude. Hasierako kapituluetan gehiegizkoa iritzi nion; tarteka alaba ohartarazten nuen: ez begiratu orain eta horrelakoak. Aurrera egin ahala, ordea, kapitalismo neoliberalaren kritika ikaragarria egiten du serieak eta pobrezia ikerketa garaikidea ere bai. Bortizkeria justifikatua dago kontaketa.

Digitalizazio garai honetan, dron hiltzaile, multinazional bihozgabe eta oinarrizko lehengaiak, gasa edo argia nola, izateko xantaia egunero praktikatzen duten enpresen aurrean gaude eta gure biziraupenaren joko-arauak antolatu dituzten ezkutuko izen-abizenek bortizki tratatzen gaituzte. Denok gara jokalaria, denok izan gaitzke ilara bateko azkenak. Hemen eta Korean.

BOHÈM
BOUTIQUE

LERSUNDI KALEA 25 - DEBA
T 608 135 775
E MAITE.BOHÈM@GMAIL.COM

Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

943 191 383



berriketan@zuhatzeta.com

Taula gaineko emakumeen balioa nabarmentzera dator azaroan Fokupean Emakume Aktoreen Festibala

Azaroaren lehen bi asteburuetan

“Fokupean: Emakume Aktoreen Festibala” izango da Deban, emakumeek arte eszenikoetan duten papera balioestea helburu duen programazioa. GOAZ antzerki taldea eta DIT feministaren eskutik, herriko antzerkigintza bultzatu eta bereziki Debako emakumeek antzerkigintzan duten paper aktiboa sustatzeko xedez, ikastaro, ekitaldi eta antzerki emanaldi ezberdinak antolatatu dira.



Programazio anitza

Azaroaren 5ean, ostirala, emango zaio hasiera festibalarri, EHAZE antzerkizale elkartearen eskutik, *Maringurua:*

Karanbola Hirukoitza: Emakumeen Presentzia euskarazko antzerki sorkuntzan liburuan oinarritutako solasaldi parte hartzaile eta performancearekin. 19:00etan egingo da, Kultur Elkartearen.

Larunbatean, hilak 6, *Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi* antzezlanarekin jarraituko du festibalak, Kamikaz Kolektiboak eta TTAk

Teatroak eskainita, 19:30ean zumardiko karpan.



Azaroaren 7an, igandea, emakume helduentzako antzerki hastapen tailer bat egingo da, Debako GOAZ antzerki taldearen eskutik, 10:00etan, jubilatuen egoitzan. Ondoren, 12:30ean Metrokoadroka konpainiaren *Andrezaharraren manifestua* izango da, zumardiko karpan.



Azaroaren 12an, ostirala, *Lakoste* antzerkia ikusi ahal izango da, Duxturi Teatroak eskainia, Gaztetxean, 19:30ean.

Azaroaren 13an eta 14an, larunbata eta igandea, Laura Penagosek emakumeei zuzendutako antzerki tailer bat emango du, Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 10:00etan. Horrez gain, larunbatean, herriko hainbat



emakume elkartuko dira 19:30ean zumardiko karpan festibalarri amaiera emango dion ekitaldi sorpresa bat aurkezteko.

Festibalaren baitan egingo diren ekimenetan parte hartzeko deia egin dute antolatzaileek, “antzerkiak eta bere ingurukoez gozatzeko aukera paregabea izango baita hura maite duen ororentzat”.



Debabarrena suspertzea helburu duen ponentzia eratzea onartu da aho batez Legebiltzarrean

Urriaren 7an, Eusko Legebiltzarreko osoko bilkurak aho batez onartu zuen Debabarreneko eskualdea eta bertan sartzen diren udalerriak suspertzeko ponentzia eratzea. EAJk, EH Bilduk eta PSE-EEK aurkeztu zuten proposamena eta eskualdea suspertzeko plan estrategiko bat diseinatzeko irizpideak adostea du helburu. Osokoan izan ziren Iñaki Arregi Mendaroko alkatea, Ane Beitia Elgoibarko alkatea, eta Iker Aldazabal Soralezuko alkatea.

Ponentziaren helburua izango da eskualdea eta bertako udalerriak (Deba, Mutriku, Mendaro, Elgoibar, Eibar, Soralez, Mallabia eta Ermua) suspertzeko plan estrategikoa diseinatzeko irizpideak adostea. Plan hori prozesu parte-hartzaile zabalen bidez garatuko da, Tokiko Garapen agentziaren gidaritzapean, eta maila desberdinetako instituzioen lan ildoak, inbertsioak eta apustu estrategikoak barneratuko ditu.

Eskualdeko Energia Bulego Birtuala aurkeztu dute Debegesaren egoitzan

Debabarreneko udalek, Debegesarekin elkarlanean, energia berriztagarriari eta birgaitze iraunkorreko obrei buruzko aholkularitza zerbitzua jarri dute martxan.

Energiaren Bulego Birtuala izena du zerbitzuak eta energia.debegesa.eus webgunean dago eskuragarri herritarrak bete behar duen inprimakia.

Zehazki, etxeko eraginkortasun energetikoaren inguruan (berokuntza, etxetresna elektrikoak, inguratzaile termikoa eta argiztapena) eta birgaitze iraunkorreko obren inguruan (eguzki-energia fotovoltaikoa, eguzki-energia termikoa, aeroterminia, biomasa eta geoterminia) kontsultak egin ahal izango dira. Gainera, faktura elektrikoari buruzko kontsultak bilduko dituen atal bat gehitu da. Bertan, energia-fakturaren azterketa eta aurrezteko eta kontsumitzeko ohituren inguruko aholkuak emango dira.

Udalak hainbat ekimen prestatu ditu Tene Mujika eta bere lana ezagutarazteko

Tene Mujika hil zela 40 urte bete ziren egunean (irailak 16) aurkeztu zuen Debako Udalak haren izana eta irudia ezagutzera emateko prestatutako ekimen sorta; ikasturte osoan zehar antolatuko dira, 2022ko udazkenean arte.

Udalak urteak daramatza Tene Mujika literatur saria lehenengo, eta beka (gure herriko historia hurbilari buruzko liburuak argitaratzeko) gero ematen, Elkar argitaletxearekin elkarlanean. Nolanahi ere, Tene Mujikaren irudia eta lana, bere garaiko emakumeekin gertatzen den bezala, ez da orduko gizonena bezain ezaguna. Eta hori erreparatu beharra ikusi du Udalak, eta dagokion aitortza egitea erabaki. Gainera, une honetan, bat egin dute hainbat pertsona Mujikari buruz egiten ari diren lanek.

Irailaren 16an zabaldu zen erakusketa izan zen lehen ekimena. Tene Mujika literatur sariaren eta historia hurbila ikertzeko bekaren lan irabazleek osatu zuten hura, eta Santa Maria elizako kalostran egon zen ikusgai urriaren 3ra arte.

16an bertan, arratsaldean, *Tene Mujika*, emakumea eta *Tene Mujika udazken argitan* lanen egileek, Nekane Goikoetxeak eta Cira Crespok, hurrenez hurren, haien lanak aurkeztu zituzten. Aurkezpenean parte hartu zuten, halaber, Eusko Jaurlaritzako Josune Zabalak, Berdintzen bekaren nondik norakoak azaltzeko eta *Jakin*-eko zuzendari Lorea Agirrek, emakume hauen lanen digitalizazio proiektua azaltzeko. Tene Mujika hobeto ezagutzeko aukera eman zuen solasaldiaren gidaria Itziar Irizar Debako Udaleko alkateordea eta berdintasun eta politika feministen zinegotzia izan zen.

Arlo desberdinak jorratu zituen Tene




Mujikak, eta horiek aintzat hartuta, 2021eko udazken eta neguan hainbat jarduera programatu dira, antzerkia, ipuingintza, olerkia... alorrei lotutakoak. Irailaren 17an, adibidez, *Frontona* antzerkia izan zen Aldats pilotalekuan.

Tene Mujika XVI. beka

Historia hurbila ikertzeko Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak elkarlanean ematen duten bekari lotuta, berriz, hainbat ekimen egingo dira datozen hila-beteetan. XVI. bekarako deialdia zabalik dago: 6.000 euroko laguntza emango da, gure herrian azken 60-70 urteetan izandako pertsona, talde, gertakari edo mugimenduren bati buruzko liburua egiteko. Abenduaren 9ra arte bidal daitezke lanak artxiboa@deba.eus helbidera eta 2022ko urtarrilean ezagutuko da irabazlea. Oinarriak www.deba.eus-en daude ikusgai.

Bestalde, irailaren 28an Deban aurkeztu zen 2019ko irabazlearen liburua: Iñigo Lopez Simonen *Bilboko etxola batean*.

2020ko bekaren deialdian bi lan sari-tu zituen epaimahaiak eta horien aurkezpenak egingo dira 2022ko udaberri eta udazkenean. Jon Abrilaren *Ezkutatutako eskuak: emakume langileak gerra ondoko Euskal Herrian*, batetik; eta bestetik, Erika Lagomaren eta Estitxu Fernandezek *Amatasun feminista*. Bi lanek dute lotura generoaren aldagaiarekin.



MATTIN URBIETA

K26+

Sed fugit interea, fugit irreparabile tempus. Konturatzerako hamar urte igaro dira *Berriketan*-en argitaratzeko idatzi nuen lehen zutabe hartatik. Hemerotekan begiratu, eta hortxe: *Geure esku(z)*. Hemeretzi urte nituen, Bilbon bizi eta Leioan, EHU-n, Fisika ikasten nenbilen. Bizitzeko gogoz, ilusioz eta zalantzez beterik zen nire zakua, sosak urri ziren eta hura betetzeko. Garaioz oroitu, eta gogora datorkit Ertzaintzak nola hustu zuen Kukutza III gaztetxea duela hamar urte, bidean gazteak eta ez hain gazteak zaurituz eta atxilotuz. Zaharrak berri.

Gazte izan ala ez izan, parean jartzen den ispiluak zehazten du. Izan ere, duela gutxi entzun nion bati 59 urte bete arte gazte garela. Nik ez dut gazte-txartelik banatuko, bai, ordea, Kutxabankek: K26+ naiz, 26 urte betetzeaz bat gaztetasuna lausotzen hasiko bailitzan, 30era iristean desagertzeko. Jakin nahiko nuke ea prekaritate, ansietatea, langabezia, kalitatezko lanpostuen eta diru-iturrien falta, etxebizitzaren espekulazio orokortua, eta, oro har, proiektu kolektiboak eta bitalak garatzeko oztopoak ere adin horrekin amaitzen ote diren.

Badakit gauza askok berdin jarraituko dutela, edo are, okertu egingo direla. Etorkizuna preso. Gero kezkatuko gara gazteek *kalezurruta* edo *botiltzarra* praktikatzen dutelako, eta polizia bidaliko dugu horiek sakabatatzen, egurra banatuz bidean. Bitartean, proiektu alternatiboak oztopatuz eta sozializatzeko bideak eraitsiz. Gazteria ito arte, iheslekurik gabe. Hamar urteren ondoren, lehen-go lepotik burua.





“Klubaren helburua urtemuga herriarekin batera ospatzea da, eta herriaren laguntza eskertzea”

75 urte bete ditu 2021ean Amaiak Bat futbol klubak. Mugarri hori aintzat harturik, 2021eko irailean hasi eta 2022ko uztaillera arte, hamaika hilabetetan, hamaika gai ardatz harturik, egitarau oparoa osatu du taldeak. Bazkideak eta herritarrek eskertzea izan dute gogoan hura antolatzean, argi baitute herriaren babesik ezean, ez liratekeela honaino, eta osasun betean gainera, iritsiko. Solasean aritu gara Jose Mari Soto lehendakaria, Gaizka Ayastuy lehendakariordea, Joseba Gorosabel diruzaina, eta Xabier Sagarna ekipo arduradun eta euskara batzordeko kidearekin klubaren orainaz, eta orain arteko ibilbideaz, gehiago jakin nahian.

Egungo Amaiak Bateko zuzendaritzakideen esanetan, XX. mende hasieran hasi ziren futbola ezagutzen Deban. Hona hemen hastapenetako garai haietan esan-guratsuak izan ziren zenbait gertakizun:

1907an lehen partida jokatu zen Bastiñoi-txiki zelaian, zumardian, eta handik sei urtera, 1913an, Itsas-Ertz zelaia inauguratu zen, hondartzaren ondoan. Urte berean sortu zen Or-Nauk taldea ere; 1920 aldera, baina, Itsas-Ertz baztertu egin behar izan zuten, mareen ondorioz egoera txarrean zegoelako, eta lehen futbol klub hura desagertu egin zen.

Lagun Artea sortu zen gero, eta Itsas-Ertzen egoera kaskarrarengatik 1923-1924an Azkoitian ibiltzen ziren jokoan. Azkenik, 1924an Montreal zelaia eraiki zuten, egungo anbulatorioaren eremuan. 1926-1927an Lagun Artea desagertu egin zen, zortzi jokalarik lehenengo mailako klubekin fitxatu zutenean.

Hiru bat urtera, 1930ean, jaio zen Amaiak Bat, eta Montreal zelaian aritzen ziren jokalaria. 1944an, industria-garapeneraren ondorioz, Montreal zelaia desagertu, eta taldeak ere bere jarduera utzi zuen.

Jose Mari Sotok esandakoaren arabera, “1946. urtera arte, hainbat arrazoiengatik, bereziki gerra zibilarengatik, agertzen eta desagertzen ibili zen kluba, baina urte hartan berriro hasi zen martxan, gaur egu-

nera arte, lehen denboraldiak Mutrikun jokatu. Hain justu, horrexegatik ospatzen da aurten 75. urteurrena, 1946tik aurrera kontatzen dugulako klubaren historia jarraipen batekin”.

“Ahal den neurrian hazi eta emakumeen taldeak sendotu nahi genituzke datozen urteetan”

Bitxikeriak ere oroitzen dituzte atzera begira jarrita. Esaterako, lehen baloia Debara 1907an heldu zenekoa Bittor Mallabiabarrena eta Jose Mari Urangaren eskutik; edo, 1948an, Errota Zar zelaian inaugurazioan 3542 zale izan zirela Amaiak Bat eta Eibarren arteko partida ikusten; edo 1950eko abenduaren 5ean Errota Zarreko tribuna inauguratu zutela, Atotxatik ekarritako tribunarekin...

“Egindako ibilbidea izugarria izan da”, dio Joseba Gorosabelek. “Herri txiki bat izan arren, kluba beti egon da Gipuzkoako futbol mailarik altuenetan. Adibide gisa, Lagun Artea desagertu izana zortzi jokalarik lehen mailako zenbait ekipok fitxatu zituztelako. Beste adibide bat ematearren, 1955-1956 denboraldian, hiru

debar lehen mailan entrenatzaile aritu ziren, lehen mailan 16-18 ekipo baino gehiago ez zirenean: Galarraga (Cultural Leonesa), Urbietia (Murtzia) eta Urquiri (Alaves)”.

Izan ere, Amaiak Bat taldeko hainbat jokalarik jokatu dute lehen mailan: Galarraga, Urbietia, Izaga, Ulazia, Riesgo... Nabarmenezkoa, era berean, Berasaluze (Europako bost kopa irabazi zituen Real Madrilekin).

Kluba 1961-1962an txapeladun izan zen Gipuzkoa ligan, hirugarren mailara igozteko eskubidea lortuz. Gainera, urte horretan, jokalaria bat bera ere ez zuten zigortu eta kiroltasun eta joko garbiaren saria eskuratu zuen. Baina, diru-arazoak medio, uko egin zioten hurrengo urtean hirugarren mailan jokatzeari.

Oztopoen ginetik, osasun onean

Oztoporik gabeko biderik ez da, ordea. Futbol zelaia, ibai ertzean egonik, hainbat uholderen ondorioak jasan ditu. Adibidez, 1983an, edo 2005ean (lehen belar artifiziala jarri eta handik hilabete gutxira uholdeek dena hondatu zuten). Zailtasun ekonomikoak ere izan dituzte urteotan; hastapenetan desagertzeraino, edo geroago hirugarren mailari uko egin behar izateraino.

“Bestetik, herri txikia izanik, talde

batzuk, batez ere neskenak, ateratzea zaila izaten da”, aipatzen du Gorosabelek.

Dena dela, egungo Amaiak Bat-i erreparatuz gero, bistan da osasun onean dela uneotan. 2021-2022 denboraldirako 141.700 euroko aurrekontua du, hamar talde eta futbol eskola bat (2010-2013 jaiotakoekin). Horietatik zazpi mutil talde (ohorezko erregionala, jubenil ohorezkoa, kadete ohorezkoa, kadete 1.a, infantil ohorezkoa, infantila eta alebinak) eta hiru neska talde (ohorezko erregionala, kadete 1., eta infantila).

Klubaren jokalaria kopurua orotara 288koa da (84 neska eta 204 mutil), entrenatzaileak 46 dira, txirrindularitza atala ere badu (Maidier Aizpurua du lehendakari), bazkideak 1022 dira, eta zuzendaritza taldeaz gain 22 laguntzaile ditu.

Hamaika hilabete; hamaika ekimen

“Amaiak Bat-en urteurrena nabarmendu du Sotok-, herriarentzako ekimeneetan oinarritu nahi izan dugu, izan ere, Amaiak Bat ez litzateke izango Debako herria, jendea, erakundeak edo elkarterik gabe. Horregatik, eta *Amaiak Bat* izenarekin jolastuz, 11 hilabetetan 11 gai ezberdin planteatu ditugu, eta bakoitzean Amaiak Bat osatzen dugun familia barneratu”.

Irailen bazkideen inguruko ekitaldiak izan dira, eta urrian kulturaren ingurukoak (Kukai eta Zuhaitz Gurrutxagaren bazarriketa). Azaroan, entrenatzaileen inguru-

koak izango dituzte, eta abenduan euskararen bueltakoak. Datorren urtean, berriz, honela banatu dituzte hilabetea ekimeneen gaiak: urtarrilean jokalaria, otsailean babesleak, martxoan emakumeak, apirilean txirrindularitza, maiatzean zuzendaritza, ekainean futbol eskola eta uztailean futbol zelaia. Urtemuga ekintza berezi batzuek itxiko dute 2022ko abuztuan.

“Ekintza hauen guztien helburua 75. urtemuga herriarekin batera ospatzea da, beti izan dugun gertutasuna mantentzea eta, nola ez, gure 1022 bazkideen eta, oro har, herriaren laguntza eskertzea”, azpimarratu du Gaizka Ayastuyk.

Etorkizuna eta erronkak

Aurrera begira jarrita, lanean jarraitzeko gogoz daude zuzendaritzakideak. “Klubaren helburua beti izan da herriko neska-mutilek kirola egiteko aukera izatea, eta horri heldu nahi diogu hurrengo urteetan. Egungo taldeei eutsi eta ahal den neurrian hazi egin nahi genuke eta, bereziki, emakumeen taldeak sendotu”. Amaiak Bat osatzen duen “familia” mantentzea ere jomugan dutela dio Xabier Sagarnak, “aniztasun handia duen elkarte baina Amaiak Bat, eta,aldi berean, herritarrak sozializatzeko puntu bat”.

“Elkartean eta zelaian euskararen erabilera sendotzea beste erronka bat da”, dio Sagarnak. Azken hilabetean Udalarekin

URRATS ESANGURATSUAK

Azken urteotako urrats esanguratsuenei dagokienez, zuzendaritzakideek ondoko laurak nabarmendu dituzte:

*1998-1999 denboraldian, nesken lehen taldea sortu zen. Gaur egun hiru talde dira eta futbol eskolan ere badaude jokalaria.

*2013-2014 eta 2015-2016 denboraldietan, Gipuzkoako klub onenaren saria lortu zuten.

*2015-2016 denboraldian, kadeteek Euskal Ligara igotzea lortu zuten.

*2019-2020 denboraldian, neska nagusien taldeak Gipuzkoako goreneko mailara igotzea lortu zuen.

elkarlanean ari dira euskararen presentzia are handiagoa izan dadin. Epe motzera begiratuta, berriz, urtemugarekin batera esku artean duten erronka handienetako bat belar-zelaia aldatzea da. Horretarako, elkarlanean dihardute Udala, Errealia, federazioa eta abarrek; “ea lortzen dugun!”.

Erronkak ez dira falta, baina lan egiteko gogoia are gutxiago, ez baitute Deba Amaiak Bat gabe irudikatzen. “Gu geu ez gara egongo hemendik urte batzuetara; etapa bat amaitutakoan elkarteko zuzendaritzak erreleboa izatea komenigarri ikusten dugu, aurrekoekin egin genuen bezala, elkarte beti gazte izan dadin”.



1962



1967



1998/1999



Ander Salegi

2016



Debarrak munduan

MERCHE UNANUE ARTETXE

Merche Unanuek 64 urte ditu egun, baina 23rekin hizkuntzak ikasteko grinak Zurichera eraman zuen. Laster, ezkondu, bi seme izan eta Suitza hartu zuen bizitoki. Zuzendari laguntzaile aritu da lanean eta egun jubilatuta dago. Maite du Deba eta oraintsu egon da bertan. Gustuko du bidaiatu eta herrialde eta kultura desberdinak ezagutzeko.

Non bizi zara? Zergatik edo nolatan?

Nyonen (Suitza) bizi naiz. Nyon Lemán lakuaren ertzean dago, Suitzako alde frantsesean, Genevatik 23 km-ra. 24.000 biztanle inguruko hiria da, erromatar aztarna ugari duna, eta Mont Blanc ikusten da bertatik.

Zerk eraman zintuen horra?

Orain dela 41 urte, urtebeterako Zurichera (Suitza alemaniarra) joan nintzen alemaniera ikastera. Han nire senarra ezagutu nuen eta ingelesa ikasteko Londresera joateko asmoa banuen ere, nire planak erabat aldatu ziren. Bertan ezkondu eta gure bi semeak jaio ziren.

Kontatuko diguzu nolako den zure eguneroko bizitza?

Jubilatuta nagoenez, egunerokoa gozaten saiatzen naiz: familia, lagunak, eta, bereziki, korrika ez ibiltzeaz, hori da gehien baloratzen dudana.

Espero zenuen bezalako da? Zerk harritu zintuen?

Zurichera iritsi nintzenean, 1980ko otsailean, hotz handia egiten zuen hiria iruditu zitzaidan eta ordura arte ezagutzen nituen oso bestelakoa. Zorionez, frantsesez hitz egiten nuen Parisen bi urtez bizi izan nintzelako, jende dezenterekin komunikatu nintekeen, suitzar gehienek zenbait hizkuntza hitz egiten dutenez.

Zure egunerokoan euskarak zein leku du?

Ez daukat euskaraz hitz egiteko edota entzuteko aukerarik hemen, Suitzan etorkin asko egon arren ez direlako, bereziki, euskaldunak.

Bertako hizkuntzarik ba al dago hor? Hizkuntza txikirik edo?

Suitzan, zortzi milioi biztanle baino gehixeagoko herrialdea, lau hizkuntza hitz egiten dira: alemaniera, frantsesa, italiara eta erromantxera, hizkuntza latindarren nahasketa.



Zer eramango zenuke horra Debatik? Eta zer ekarriko?

Debatik nire sustraiak eta bizipenak, semei transmititu dizkiedala uste dudanak, eramango nituzke. Umeok gure jolasekin kalean geneukan askatasun hori, dantza-klaseak Txaro Garaterekin eta txistuarenak bere anaia Jose Antoniorekin, bie ala bie izugarri eskertzen diet hainbeste oroitzapen on. Don Anastasio apaizarekin egiten genituen txangoak, hainbeste gozatu nituen San Roke jaiak...

Suitzatik lanbide ikasketarako sistema ekarriko nuke, gaur egun munduko zati handi batean erreferente dena.

Debara bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Nire senarra eta biok Deban hilabete batzuk eta Suitzan, semeak eta lagunetakoz batzuk ditugun lekuan, beste batzuk bizitzeko konpromisoa hartua dugu. Bi kultura desberdin eta aldi berean osagarri aprobetxatu ahal izateko zorte handia daukagu.

Laburrean

Paisaia bat:

Arriola baserritik (nire ama jaio zen lekua) dauden bistak

Usain bat:

Tojaren Magno xaboiarena
Zapore edo jaki bat:
Iñaxioko txuletak eta marmitakoa

Gustuko dut...

Tolerantzia eta izpiritua zabaltzea

Ez dut gustuko...

Errespeturik eza
Amets bat:
Itsasora begira dagoen etxebizitza bat izatea





ABUZTUKO BIRA | SARIDUNAK



Laura Solozabal
Myriam Aldabaldetrek
Mikel Irusta
Itziar Bergara
Itziar Larramendi



Itsaso Iciar
Itzale Laka
Aitor Zubikarai
Aitor Duñabeitia
Julia Nijs

Lander Aznal
Aurora Ampuero
Jagoba Egaña
Pablo Ron
Iker Zubikarai

ABUZTUKO ERANTZUN ZUZENAK

1. Josu Salegi | 2. 2016 | 3. Willy Berasaluze | 4. Ipuinen mesedea | 5. McOnak | 6. Debako Elizan

URRIKO BIRA:



1. Zein izenburu du Baroja Colletek aurten kaleratu duen arte-liburuak?



2. Zein da Debako Gaztetxean dagoen muralaren egilea?

- A) ArteFactory
- B) Lian
- D) Nexgraff
- E) Sortwo



3. Zein da Debako anbulategi atzean dagoen plazaren izena?



4. Zein urtetan eraiki zen Deba eta Mutriku lotzen dituen zubia?

- A) 1756
- B) 1805
- D) 1866
- E) 1922



5. Zenbatgarren postua lortu du Xabi Osak aurtengo *Nobull CrossFit Games* jokoetan?



6. Zein izen dauka Alaitz Eskuderoren proiektu berriak?

- A) Orbelak
- B) Neomak
- D) Hegoak
- E) Sorginak

PARTE HARTZEKO:

www.labur.eus/BIRA_urria

Erantzun gehien asmatzen dituztenen artean

Parte hartzaile guztien artean

Zuriñe Gredilla artisauaren
bi artelan
banatuko dira

Zuriñe Gredilla artisauaren
artelan bat
zozketatuko da

Erantzunak bidaltzeko azken eguna: **azaroaren 7a**

Irabazleen izenak azaroko *Berriketan*-en argitaratuko dira. **Animatu!**

Neurrietara egokitutako Euskal Jaia izan da aurtengoa

Unean uneko baldintza eta neurrietara egokitutako Euskal Jaia izan da aurtengoa. Iazko etenaren ondoren, ospakizuna berreskuratzeke apustua egin zuten Udalak eta antolaketan parte hartzen duten kultur eragileek, eta egitarau xumea antolatu zuten elkarlanean. Eguerdian, Kalez Kale txistulari, Gure Kai dantzari eta Deban Kalean Kantuz taldeen emanaldiez gozatzeko aukera izan zen. Zuhatza elkarteak antolatutako bazkaria izan zen gero Aldats pilotalekuan eta, iluntzean, Anariren kontzertua zumardiko karpan.



Udazkena eta negua ikastaroz blai datoz Gozatuz programari esker

2021-2022 ikasturterako, 16 urtetik beherakoentzako eta gorakoentzako hainbat ikastaro jarri dira dagoeneko abian. Lehenengo multzokoek antzerkia, argazkilaritza, pintura, sukaldaritza eta teknologia ikasteko aukera izango dute, eta 71 partaide izango dira orotara ikastaroetan. Bigarren multzokoek, berriz, antzerkia, argazkilaritza, tailla, eta zeramikarako trebetasunak landuko dituzte; 45 lagunek izango dute aukera hori. Ikastaro gehienetan plaza batzuk libre daude oraindik eta izena eman liteke. Informazio gehiagorako, jarri harremanetan Udaleko euskara zerbitzuarekin (688663744 telefono zenbakira deituta edo euskara@deba.eus helbide elektronikora idatzita).

Irakurketa Kluba laster martxan Ostolaza udal liburutegian

Urrian, dena ondo bidean, hasiko dira martxan Irakurketa Klubean programatuta dauden saioak. Lehenengoa hilaren 27an (asteazkena) egingo da eta Uxue Alberdi idazle elgoibartarraren *Dendaostekoak*



(Susa, 2020) liburuarekin hasiko dira. Dinamizatzailea Asier Serrano izango da. Saioak 19:00etatik 20:30era bitartean egingo dira eta bertan parte hartu ahal izateko alde zuzena eman beharko da liburutegian. Landuko den liburua norberak ekarri beharko du. Azaroaren 15ean eta 24an egingo dira hurrengo saioak, *Sobre los huesos de los muertos* eta *Epizentroa* hizpide hartuta, hurrenez hurren.

Zabalik da dagoeneko Mintzalaguna programan izena emateko epea Deban

Urriarekin batera, mintzapraktikaren ikasturte berria ere abian da Deban, "Aurten *MintzaPoza* praktikatu" lemapean. Zuhatza Euskara Elkartek kudeatzen du programa, Euskaltzaleen Topagunearekin elkarlanean, eta urrian zabaldu du izen-ematea. Hala ere, betiko moduan, urtean zehar ere egongo da egitasmoarekin bat egiteko aukera (aurrez osatutako taldeetan sartuko dira interesdunak).

Mintzalaguna programak euskaraz hitz egin ohi duten pertsonak eta euskaraz egin nahi dutenak elkartzen dituen programa da. Funtzionamenduari dago-kionez, parte hartzaileen artean talde txikiak egiten dira eta astean behin ordu betez beraien aisialdi garaian elkartzen dira paseoan, kafetegian, parkeetan... euskaraz aritzeko, finean, euskaraz bizitzeko. Doakoa da programa eta bi modutara har daiteke parte, euskara praktikatzuz (bidelaria) eta euskara prak-

tikatzen lagunduz (bidelaguna). Euskaraz komunikatzeko gai izatea eta astean ordubetez elkartzeko prest egotea dira mintzalagun izateko baldintza bakarrak.

Aurtengoa "bereziki bizi, garrantzitsu, gogotsu dator", antolatzaileen hitzetan. Azken bi urtetan ezinezkoa izan baita jarduna bere horretan. Hala ere, Euskal Herrian orotara 6800 lagun astero-astero bildu izan dira programari esker.

Baina, noski, betikora itzultzeko gogoz dira egitasmoaren arduradunak: taldekideekin berriz elkartzeko eta *MintzaPoza* elkarrekin praktikatzeko.

Nola eman daiteke izena?

Zuhatza elkartearen bulegoan bertan (Ifar kalea 12an), 943 19 13 83 telefono zenbakian, koordinatzailea@zuhatza.com en edo labur.eus/Zuhatza_Deba helbidean sartuta eman daiteke izena.

Badator Errigoraren udazkeneko kanpaina



Urriaren 23tik azaroaren 11ra izango da Errigoraren kanpaina berria, eta Zuhatza elkarteak bazkideek Errigorako saskia Deban bertan jasotzeko aukera izango dute.

Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes duen ekimen herritar honek bi kanpaina nagusi izan ohi ditu urtero. Udaberrian *Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura* lemapean bertako oliba-olio birjina estra eta kontserba sortak Euskal Herri osoko etxetara banatzen dira. Udazkenean, berriz, *Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka* lemapean, Nafarroa hegoalde eta erdialdeko produktuz osatutako saskiak milaka etxetara eramaten dira, eta, auzolanari esker, bertako euskalgintzari ekarpen-ekonomiko garrantzitsua egiten zaio (saski bakoitzaren balioaren % 25). Gainera, Agerraldia egitasmo berriaren iturburu eta sustengu ere bada. Informazio gehiagorako: www.errigora.eus.

Abian da Mendata eta Zuhatzak antolatutako literatur lehiaketa

Urrian abiatu da Mendata ikastetxeak eta Zuhatzak elkarlanean antolatutako literatur lehiaketa eta bi zikloetako 226 ikasleek hartuko dute parte aurtengo deialdian. Lau kidez osatutako epaimahaia izango da eta sariak abenduaren 3an banatuko dira, Euskararen Egunean. Aurtengoan, irudi eta esaldi bat emango zaie ikasleei aukeran eta berau gaitzat hartuta sortu beharko dute idazlana.

Mintza POZA PRAKTIKATUZ
EGIN ZAITEZ
MINTZA LAGUN!
IZEN EMATEA
www.labur/Zuhatza_Deba
Ifar kalea 12, behea
943 19 13 83

Zuhatza euskara elkartea
euskaltzaleen topagunea
DEBARKO UDALA

URRIKO
ZOZKETA
ZUHATZAko BAZKIDEEEN ARTEAN
YURRITA
ARRAIN
KONTSERBEN
PRODUKTU SORTA

ZOZKETA EGUNA:
URRIAK 29, OSTIRALA
FACEBOOK BIDEZ

Zuhatza euskara elkartea

GAZTEAK *idazle*

Mendata institutuak eta Zuhatza Euskara Elkarteak elkarlanean antolatutako ipuin lehiaketan saritutako lanetako bat duzue hemen. Bigarren zikloko lehen saria irabazi zuen ondorengo ipuinak. Irakurketa on!

BI UR TANTA

Etxebizitza bloke batean bi neskato bizi ziren parez pare. Teah eta Leah.

Lehen begiratuan bi ur tanta bezalakoak ziren. Berdin-berdinak. Bikiak ziruditela esan dezakegu.

Teah-ren ile gorriek sorbaldak ukitzeko asmoa zuten. Leah-renak, berriz, haren aldaketaraino iristen ziren, berandu hasitako kurbak nabarmenduz; ile guztia mozteko momentu egokiaren bila zebilen, baina komunean eseri eta guraizeak hartzen zituen unean, bere buruan bi hitz errepikatzen ziren: gaur ez. Gaur ez. Gaur ez.

Biek sudur inguruan zituzten oreztek liluratuta uzten zuten Leah. Orduak eta orduak pasatzen zituen ispiluaren aurrean ostadarraren koloreekin bere masailetako puntutxoak margotzen, edo izarrak zirela imajinatzen: konstelazio bat.

Teah-k, aldiz, ez zituen oso gustuko; minutuero beste bat ateratzen zela iruditzen zitzaion. Bizitzan galdutako minutu guztien truke zituela pentsatzen zuen. Orezta horiek ikusi zituzten makillaje geruza guztiak kontatzea ezinezkoa izango litzateke.

Orain dela egun batzuk, Leah Parisko kale ederretan zehar paseoan zebilela, ile gorridun neska bat ikusi zuen leiho batean itsatsitako poster bati begira; Teah zen. Kopetilun zegoen, erabat geldi. Leah-ren kuriositatea azaleratu eta bere masailak gorritu egin ziren irrikaz. Hurbildu zenean, bere ezpainak, lehen gorantz kurbatuta zeudenak, lerro zuzen batean eraldatu ziren.

"Quelle est votre plus grande peur?". "Zein da zure beldurrik handiena?". Biak isilik, kale erdiko poster batean egoteko gal-

dera bitxia zela pentsatzen.

Bakoitza galaxia desberdin batean zegoela zirudien, pentsamenduak eta esan beharrak alde batetik bestera zihoazela. Eta horrela igaro zituzten hogeitaz minutu bakoitzak etxera itzultzeko bide desberdin bat hartu baino lehen. Teah eta Leah, bakoitza bere apartamentu txikira sartu eta atearen kontra eseri ziren.

"Zein da zure beldurrik handiena?", *"zein da zure beldurrik handiena?"*, *"zein da zure beldurrik handiena?"*, *"zein da zure beldurrik handiena?"*. Galderak haien buruetan durunda egiten zuen.

Teah-k argi zuen: denbora. Kezka hori nerabezaroan eratu zitzaion neskatarari.

Denbora galtzen ari al zen? Behin amonaren adinera iritsitakoan, bere bizitzaren osotasuna ez disfrutatzeaz damutuko al zen? Askotan, amarekin pasatako arratsaldeak gogoratzen zituen.

"Beldurrik ez izan zure bizitza birplanteatzeko", esaten zuen, Teah-ren ilea laztanduz. "Teah, laztana, oraindik gaztea zara, baina beldurrez bizitzea ez bizitzearen sinonimo da. Ausartu nahasten. Ausartu zure eskemak apurtzen. Bizitzak denbora mugatu bat ematen digu, aprobeixatu".

Egunak eta egunak pasatzen zituen bere logelan, haren koadernoetan zirriborroak egiten, batzuetan orrietako kolore txuria desagertu arte, sabaira begira... amaren hitzak behin eta berriz bere buruan errepikatuz. "Nola damutzen naizen, kasu egin izan banizu...".

Hormaren beste aldean Leah buruz behera zegoen, bere buruko pentsamen-



duak inoiz isilduko ote ziren galdezka. Tamalez, ez zen horrela izan.

Bere beldurrik handiena bizitzan zehar galtzea zen. Bere burua galtzea. Bere esentzia. Batzuetan soinean zeraman perfekzionismoa Leah baino hiruzpalau pauso aurretik zihoan. Eta momentu horietan, etxe orratz baten puntan zegoela iruditzen zitzaion. Han mundu guztiari begira oso txikia sentitzen zen. Nimiñoa. Gizartearekin bat ez zetorrelakoan zegoen. Baina horrek ez zuen gauza txarra izan behar... edo hori pentsatzea gustatzen zitzaion.

Gehienetan, ezinezkoa izaten zen bizi-lagunak bata bestearengandik desberdintzea, gure bizitzako erabakiak hartzerakotan aukerak desberdintzeko zailtasunak ditugunean bezala. Teah-k galdutako denbora guztia motxila batean sartzen ari zuten bitartean, Leah-k paretean itsatsita zuen mundu osoko mapa bati begira igarotzen zituen hiruzpalau ordu jarraian.

Etxebizitza bloke batean bi neskato bizi ziren parez pare. Teah eta Leah. Lehen begiratuan bi ur tanta bezalakoak ziren. Berdin-berdinak. Bigarren begiratuan, berriz, yin eta yang-a ziruditen. Guztiz desberdinak, baina elkarren osagarri ezin hobeak.

Ane Gonzalez (2. zikloko lehen saria)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



ITURLAN, S.L.
Iturgintza-Berogailuak



Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfnoa - Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com

- EUSKERAZ - BAGERA!

ZERGATIK ZARA ZUHATZA EUSKARA ELKARTEKO BAZKIDE?



ANE EGIDAZU


59 urte

Berriketan aldizkariaren lehenengo zenbakien argitalpenekin batera Zuhatza Euskara Elkarteko bazkide egin nintzen, dagoeneko urte mordo bat! Azpimarratzekoa da ibilbide luze honetan elkartea egiten ari den lana: euskara hutsean dugun tokiko aldizkari bakarra kaleratu, haurrek hain gogoko dituzten udalekuak martxan ipini, Mintzalagun egitasmoa, hainbat kultur ekimen, lehiaketak, ... antolatu. Euskararen normalizazioaren aldeko jardunean oso garrantzitsua da elkarteak burutzen duen lana, baina guztion laguntzarik gabe ezinezkoa izango da luzaroan bizirautea. Animatu eta izan zaitez bazkide!

IÑAXIO GARMENDIA

70 urte

Euskara da euskaldunon hizkuntza, euskaradunon aberria, gure patria. Berde eta eder mantenduko den lorategi bat izango bada, arnasten jarraituko badu zerura begira inguru urbano honetan, aldameneko etxebizitzek itzal egiten dioten bitartean, gure hautu positiboagatik izango da. Bide horretan Zuhatza bezalako elkarteak behar ditugu, indarrak batzen lagunduko digutenak.



KARMELE PRAT

49 urte

Zergatik naizen Zuhatza Euskara Elkarteko bazkide?

Euskara maite dudalako; gure kultura eta ohiturak zeintzuk diren gogorarazten digulako Zuhatza elkarteak. Ekintza desberdinak antolatuz sustraiak zabalitzen dituelako, elkarlana egiten delako... Nola ez naiz bada "nondik gatozen eta zer garen" horri bizia ematen dion elkarteko bazkide izango?

AIMAR LASA

40 urte

Hainbat urtez martxan dagoen proiektu honi ekarpena egiteagatik naiz ni ere Zuhatza Euskara Elkarteko bazkide.

Euskal Herrian egon diren edo gaur egun martxan dauden ekimen interesgarri gehienak herritarron ekarpenari esker garatu dira.

Elkarte edo eragile bezala autonomia ekonomikoa garrantzitsua da norberak bere erabakiak hartu ahal izateko.

Norbere aletxoak jartzeko aukera da Zuhatzako bazkide izatea.



URRIAK 22, OSTIRALA

-22:00. **Bakarrizketa:** "FutbolisTOK" (Zuhaitz Gurrutxaga), zumardiko karpan, Amaiak Batek antolatuta. Sarrerak egunean bertan salgai, plaza zaharrean (19:00etatik 21:00etara).

URRIAK 23, LARUNBATA

-20:00. **Organo kontzertua** (V. Flysch Jaialdia), elizan. Gonbidapenak turismo bulegoan.

URRIAK 27, ASTEAZKENA

-19:00. **Irakurketa kluba**, "Dendaostekoak" (Uxue Alberdi), Ostolaza liburutegian. Asier Serranok gidatuta.

AZAROAK 5, OSTIRALA

-19:00. **Maringurua:** "Emakumeak euskarazko antzerki sorkuntzan", Kultur Elkartearen (Fokupean festibala).

AZAROAK 6, LARUNBATA

-9:00-15:00. "Harria eta herria" **karst jaialdia**, karpan. Informazioa: www.geoparkea.eus.

-16:30. **VIII. Manuel Mateos Memoriala**, herri lasterketa.

-19:30. **Antzerkia:** "Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi", karpan (Fokupean festibala).

AZAROAK 7, IGANDEA

-10:00. **Emakume helduentzako antzerki hastapen tailerra** (GOAZ), jubilatuetan.

-10:00. **Bisita gidatua:** "Flysch beltza". Informazio gehiagorako: www.geoparkea.eus.

-12:30. **Antzerkia:** "Andrezaharraren manifestua" (Metrokoadroka konpainia), karpan.

AZAROAK 12, OSTIRALA

-19:30. **Antzerkia:** "Lakoste", Duxturi Teatroaren eskutik, Gaztetxean.

AZAROAK 13, LARUNBATA

-**Kolore Anitz Eguna;** haur eta nerabeentzako ekimenak egun osoan zehar.

-10:00. **Emakumeei zuzenduriko antzerki tailerra**, L. Penagoson eskutik, Ispiluen gelan.

-16:00. **Bisita gidatua:** "Gotikoaren altxorra". Informazio gehiagorako: www.geoparkea.eus.

-19:30. **Fokupean festibalaren amaierako ekitaldi sorpresa**, zumardiko karpan.

AZAROAK 14, IGANDEA

-10:00. **Emakumeei zuzenduriko antzerki tailerra**, L. Penagoson eskutik, Ispiluen gelan.

AZAROAK 15, ASTELEHENA

-12:00. **Pentsiodunen elkarretaratzea**, Foruen Plazan.

-19:00. **Irakurketa kluba**, "Sobre los huesos de los muertos" (Olga Tokarczuk), liburutegian.

Odola emateko deialdia

-Azaroaren 12an (ostirala) odola emateko saio berri bat egingo da Luzaro ikastetxean, 17:00etan. Aste horretan bertan 623 328 408 zenbakira deituta hartu beharko da txanda (16:30etik 20:30era) edo WhatsApp-a bidaliz. Debako Odol Emaileen Elkarteak bertan parte hartzeko deia egin du.

Lehiaketak

-Beldur Barik lehiaketara lanak aurkezteko epea zabalik dago azaroaren 5era arte. Informazioa www.beldurbarik.eus atarian.

-Tene Mujika XVI. Bekarako deialdia zabalik dago. Abenduaren 9ra arte bidal daitezke lanak artxiboa@deba.eus helbidera. Oinarriak www.deba.eus webgunean.

Errigora

-Urriaren 23tik azaroaren 11ra bitartean izango da Errigoraren udazkeneko kanpaina. Oraingoan ere Zuhatza elkarteko bazkideek Nafarroa hegoalde eta erdialdeko produktuez osatutako saskia eskatu eta Deban jaso ahal izango dute. Informazio gehiagorako: www.errigora.eus.

...eta Debabarrenean zer? Eskualdeko hainbat plan interesgarri

URRIAK 22, OSTIRALA

Elgoibar

-20:30. **Antzerkia:** "LOSERS". Jon Plazaola eta Aitziber Garmendia (Txalo Produkzioak), Herriko Antzokian. Sarrera hamar euro.

URRIAK 31, IGANDEA

Eibar

-**Breaking Eibar** dantza urbanoari eskainitako jaialdiaren VI. edizioa: masterclass-a Portalean, lehiaketa Errebal Plazian...

AZAROAK 13, LARUNBATA

Soraluze

-10:00. **Gaztañerre Eguna.**

Ermua

-XXXI. San Martin Azoka.

ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **azaroak 5, 6, 7, 15, 16, 17, 18.**

Burgoa Zuazo: **urriak 22, 23, 24.**

azaroak 1, 2, 3, 4, 19, 20, 21.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:


ZALDUEGI: urriak 23 / azaroak 13 eta 20

BURGOA ZUAZO: urriak 30 / azaroak 6

9:30 - 13:00



ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

RPS: 183/12

LIZ.-ZK.: 3

TaxiAlain Deba

WiFi

www.taxideba.eus

636 135 008
alain@taxideba.eus

ieraenea
ekodenda

"maite ditut nire/gure basterrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
Telf: 943 53 95 20- E-mail: ieraenea@gmail.com

kutxabank

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

ADATS ILEAPAINDEGIAK MUTRIKU
Behoko plaza 1 MUTRIKU
T. 943 60 39 45

www.facebook.com/adatsileak
 @adatsileak

AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

447

urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Nº. 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlo.net

sasoiiko

ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teknika (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoi@hotmail.com

GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

DOITASUNA MEKANIZAZIOAN; KONPROMISOA KOMUNITATEAN

Zehaztasun handiko mekanizazioan erreferente izateaz gain, Goimekek inguruarekiko konpromiso estua ere badauka. Bestek beste, ongizatea eta osasuna, garapenerako kooperazioa, gizarte-inklusioa, ingurumena, hezkuntza, kirola, euskara eta kultura ekimenak sustatzen ditu instalakuntzak dituen ingurune gertuan.

Goimek

Itzilar Industrialdea, 2. Partzela · P.O. Box 5 - Deba (Gipuzkoa) - Spain
+34 943 60 63 15
www.goimek.com

DANOBATGROUP